



O.J.D.: No hay datos
E.G.M.: 57000
Tarifa: 1050 €
Área: 255 cm2 - 30%

Jaurlaritzak dio biktimek «mezu hezitzailea» ematen dutela ikastetxeetan

Jonan Fernandezek dio bizikidetzaren aldeko diskurtsoa dela planean parte hartzen ari diren biktima guztiena

Erredakzioa Gasteiz

Indarkeriaren biktimek eskoletan «mezu hezitzailea» ematen dutela nabarmendu du Jonan Fernandez Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkariak. Planean aldatetako egitea erabaki du Jaurlaritzak: ETaren eta GALen biktimekin batera, Poliziaren indarkeriaren biktimak ere hasiko dira eskoletara joaten. Guztien mezua bateratua dela uste du Fernandezek: «Programan parte hartzen ari den biktima bakoitzak beste guztiak ordezkatzeko ditu». Hartara, eskoletara joaten diren biktimak ez bereizteko eskatu du: «Giza eskubideen urraketa larriak jasan dituzten pertsonak dira guztiak».

Hamahiru biktima ari dira parte hartzen oraingo programa horretan. Aurreko legealdian abiatu zuten plana, Isabel Zelaa sailburu zela, eta oraingo gobernuak segitzea erabaki du, Poliziaren biktimak ere txertatuta. Biktima gehienak aurreko legealdian hasi ziren berak dira. Parte hartzen ari diren guztiek indarkeriaren aurkako mezua dute, Fernandezek esanetan. «Bizikidetzara erakartzeko diskurtsoa erakartzaila dute, eta indarkeriaren eta haren justifikazioaren aurkako posizioa».

Zeresana eragin du egitasmoak, egokia ote den. Fernandezek uste du beharrezkoa dela eskola umei errealitate hori agertzea: «Zuzeneko lekukotasunak ahalbidetzen du hilketa batek eragin duen eskubide urraketa ulertzea. Abstrakzio izateari uzten dio, eta benetako eta aurreko aurreko bihurtzen da».

Eztabaidatik kanpo

Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuarekin batera eman zituen argibideak Fernandezek atzo, Eusko Legebiltzarrean. Uriartek ere goraipatu egin zuen programa, eta ohartarazi zuen hezkuntzaren helburuen artean dagoela «giza duintasunean, elkarbizitzan eta enpatian» hezteak; horretan, Uriarteren ustez, «balio pedagogiko handia» du biktimen testigantza jasotzeak. Hezkuntzako eragile gehienek elkarbizitza sustatzeko adostasuna lortu dutela nabarmendu du sailburuak, eta eskatu du hedabideetako eztabaidatik kanpo uzteko gai hori.